

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Uraren bidaia

Haur Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Harmonian hazten eta komunikazioa eta errealitatearen adierazpena

Ba al zenekien ur tanta batek hegan egin dezakeela, lur azpian ezkutatu edo hodei baten parte izan? Horrela da uraren ziklo zoragarria!

Gutxi gorabehera 3 orduko abentura batera gonbidatzen zaitugu, non urak egiten duen bideari jarraituko diogun: ibaietatik zeruraino, lurretik, landareetatik... eta zugaraino! Jolas eta esperimientuen bidez bere sekretu guztiak ezagutuko ditugu.